







## Udaberrirako planik ba al duzu?

Depilazioak, esku eta hanken zaintza, aurpegiko larruazal garbiketa, permanentea, betileen tindatzea, makillajea, U.V.A. izpi gabeko momentuko brontzeatua, esfolazio korporala, hidratazio korporala.

4X3 4 zerbitzu berdin edo desberdin aukeratu eta 3 ordaindu.


Lagunekin zure abonua konpartitu dezakezu.

- Ez du beste beherapenetan balio
- Gutxieneko inportearen doako zerbitzua
- Promozioak, apirilaren 30era arte balio du

# OÑATIBIA

e s t e t i k a

Pablo Gorosabel, 7  
Tel.: 943 536 971  
20400 Tolosa



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

### MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



**ZEUK** mō  
AUKERATU

betaurreko  
progresiboak

**147€**

kristalak barne

10/11/2014 10:00 (betaurreko progresiboak 30era arte) Ezin da beste eskaintza edo promozio berririk erabili.

San Frantzisko 23 • Tel.: 943 69 84 70 • **TOLOSA**



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo  
 Banatzaileak: Olatz,  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOITIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irua, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



KULTURA SAIA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Kontsumo taldea sortzen

“Nik hilean kuota bat ordainduko dizut; trukean, zuk, zure baserrian ekoiztutako garaian-garaiko barazkiekin betetako oterra emango didazu astero”. Era sinplean azalduta, hori da kontsumo talde batean kontsumitzaileak eta baserritarrak hitzartzen dutena. Bi aldeek hartzen duten konpromisoa ordea zabalagoa da: kontsumitzaileak produktu horiek erosteko konpromisoa hartzen du, eta ekoizleak, bere ekoizpena kontsumitzailearen nahietara moldatzekoa. Gardentasunean eta gertutasunean oinarritutako harremana da.

8-13. orrialdeak

«Ez dira gazte guztiak inguratzen, beti saiatu izan gara denen bilgunea izaten. Hasiera hartan jende asko biltzen ginen, baina ostiralero biltzeko konpromisoa ere eskatzen zuen. Gaur egun hamabost biltzen bagara, garai hartan hogeita hamar biltzen ginen ostiralero».

Elkarrizketa: Ibarako Gaztetxea

16-18. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Antton Izagirre eta Virginia Etxarri	4-5
	Normalizazioa: Martxoak 24, Galtzaundiren Batzar Nagusia	6-7
	Eskualdeko albisteak: uhin elektromagnetikoak eztabaidagai	14-15
	Irakurlearen begietatik: Denbora enaren hegaletan	19
	Kultura: Peachy Joke taldeari elkarrizketa	20-21
	Kirol saltsa: Eskualdeko herritarrak Saharako maratoian	22-23

## Elkartasuna eraiki



Antton Izagirre  
Irakaslea

4

Aurreko idatzian adierazi nuen Ezker Abertzaleak Altsasun egindako adierazpenak eta martxan jarritako eztabaida prozesoa eraikitako bidea jorratuz gero Euskal Herria abagune politiko berrian aurkituko zenaren itzaropena. Hartatik hilabete batzuk igaro direnean, orduan egindako aurreikuspena baieztatzeko, Euskal Herriko eragile politiko askok eta Europa eta mundu mailako zenbaitek egindako adierazpenei erreparatu besterik ez dago.

Esan dezakegu Euskal Herria, Ezker Abertzaleak egindako ekarpenaren eskutik Euskal Herriko eta Europako agenda politikoan bere tokia hartzen ari dela, oraingoan definitiboki gatazka politiko eta armatuaren gainditze aldera, oinarri demokratikoak ezarri eta bide politikoetatik autodeterminazioa eta nazio erakuntzaren erronkari ekiteko.

Agerikoa da bidea ez dela eroso izan, biltzeko eta manifestatzeko eskubideak ukatuak izan arren, milaka lagun artean halako sakontasuneko ildoak garatzeko gai izan garenean, garbi dago ez gaudela alferrik galtzen uzteko eta euskal herritarren

gehiengoaren nahia bideratzen eta gauzatzen ari garenen ziurtasunak kemena eta tinkotasuna eskeintzen digula.

Baina egitekoa ez da gutxi batzuen, ez da klase politikoarena. Herria ren geroa dago jokoan eta herritar guztiok dugu geure zeregina, nork bere eremutik. Herritarren artean, egun ilunak atzera uzteko itzaropena eraikitzen ari den honetan, okerrekoa litzateke pentsatzea soilik batzuen artean edo euskaldun batzuk bestean aurka eraiki beharreko bidea denik. Hori bai, hemen jokoan dagoena legitimitate demokratikoa izanik ezin liteke biderik egin inor debekuan mantenduz eta giza eskubideak edo eskubide zibil eta politikoak urratuak dauden bitartean. Benetako prozesu demokratikoa eraikitzean dago katea eta kolore guztietako euskal herritarrei erabakitzeo eskubidearen aitortpena.

Ziur gaude aurrerantzean ez dela ezer berdina izango. Eragile politikoei fitxa mugitzea dago kiela eta herritarroei atzera bueltarik gabeko prozesuan parte hartzaile aktiboak izatea.

Batzuk hautu politiko garbia egingo dugu bidai honetan. Geure buruan independentistatzat dugunok, hautu honen aldeko indar metaketan jarriko ditugu geure indarrak, uste bait dugu ñabardura politikoak alde batera utzi eta lerro nagusietan ados jar gaitzekela. Ekimen honetarako sortu berria da "Independentistak" sarea eta milaka lagun deiarrez apirilaren 4an Irun Hendaia ibilbidean topo egingo dugu Aberri Eguna ospatu eta Euskal Herriak Europako Estatu berria izateko eskubidea aldarrikatzeko; horrela aro politiko berri honi kemenez lotzeko. ©

# Munduen arteko gerra

Chicagoko 7:40etan, Jennings mendiko behategian dagoen Farrel irakasleak Marteko planetan gas eztanda desberdinak izan direla dio. Estretoskopioak dioenaren arabera hidrogeno gasa da eta Lurrera belozitate handian omen dator. Princeton behategian dagoen Pierson irakasleak Farrel-en ikerketak baieztatzen ditu eta fenomenoak "su urdin" bat izango bailitzan deskribatzen du."

Welles-ek ez zuen imaginatu ere egingo erretrasmisio hark izango zuen erreperkusioren. Jordi Hereu-ek ere ez zuen inongo susmorik izango Bartzelonako elurra magnitude handiko arazo batetan bilakatuko zitekeenik. Eta, ez nago politika kontuez hizketan, baizik eta hiritarrok jasan behar izan genuenez, eta egun herri txiki batzuetan duten egoeraz.

Asteheneko eguerdian elur motatxo batzuk erortzen ziren lurrera, baina bertan desagertzen ziren. Liburutegian denak gauza beraz ari ziren: elurraz. Kubatarrak ematen zuten! Azterketa garaian egon arren, ikasleak buruak liburu artekin ateratzen eta leihotatik begiratzen zuten.

Pare bat dei jaso nituen: batzuk, trenak ez zihoazela zioen; besteak, etxetik nire bila autoan jeistea ezinezkoa zela.

Bi ordotara, eta inork horrelako zerbait gertatu litekeen susmoa izan gabe, Bartzelona elurrez josita zegoen.

15 kilometro nituen etxeraino eta bertara iristeko esperantza askorik gabe bideari ekin nion. Tranbia hartu eta patxadaz txuri bilakatu ziren Diagonaleko erai-kinei begira joan nintzen.

Sant Andrià de Besos herrira iritsi aurretik lehen istripua ikusi

genuen eta ondorioz sortutako butxadura. Tranbiako gidaria trenbidera ateratzen eta elurra kendu ostean abenturarekin jarraitu genuen. Baina, odisea oraindik hastear zegoen.

Banekien tren-aldaketa egitea ia ezinezkoa izango zela, baina espero ez nuena Sant Adrià de Besos herria erabat inkomunikatua aurkitzea zen: ez autobus, ez taxi eta noski, ezta trenik ere.

Eta gainera, ez nintzen ni egoera hartan aurkitzen zen pertsona bakarra. Ehun bat lagun nire moduan trenbide estazioan zer egin ez zekitela zeuden. Nik pertsona talde bat biltzen saiatu nintzen, denek elkarrekin taxi bat hartzeko. Baina, taxistek ez zuten telefonoa hartzen.

Oinak eta eskuak erabat izoztuta nituen. Bi ordu igaro ziren unibertsitatetik irten nintzenetik eta Besos-etik elurpean oinez denbora luze batez ibili ostean "autostop" egitea erabaki nuen. Zein da Badalona-ra eramaten duen errepide nagusia?

Errepidera irten eta zerbitzurik gabe zetorren taxista bat geratu nuen. Gaixo aurpegia ikusi zidan. Nitaz errukitu eta berarekin hartu ninduen.

Bidean zehar zer aurkituko genuen ez genekien. Taxistaren kotxea ez zen aldapak igotzeko gai eta honen ondorioz, ustegabekoren bat aurkitzen baldin bagenuen ezingo genuen bigarren errepide bat hartu.

Ni bitartean, txarolezko zapata ziztrinak kendu eta oinak berotzen saiatzen nintzen kotxearen berogailuarekin.

"Trenton-eko komando militarrek gure erretrasmisio irrati guztiak bere beharretara jartzera eskatu digu. Eta egoeraren larritasuna ikusita gure laguntza guz-



Virginia Etxarri  
Ikaslea

Gizonezko baten ahotsak eguraldia ematen ari denari mozten dio. Irrati uhinetatik zera irteten da: "Gizon-andreok. Gure dantza eta musika saioa moztu beharrean aurkitzen gara Internacional Radio News-eko azken orduko berri bat emateko.

tia ematea erabaki dugu."

Urrutian autopista, buf... geldirik dauden autoen argiek kolore sinfonia bat osatzen dute eta anbulantzi eta polizia sirenen soinuak hots pintura bat. Denek batera, munduen arteko gerra.

"(..) Washington-etik. Estudioan ehundaka boletín ditugu eta denak irakurri ezinezko gabil-tza. Nueva Jersey-ko erdigunearekin harremanetan jartzeko gai ez direla esaten digute, bero izpiek transmisio kableak eta ekipoen elektrikoak hautsi dituzte

Honek ez duela oso itxura ona esaten dit taxistak. Bere etxera iritsi eta bertan utzi behar nauela dio. Mendingo bizi naizela eta autoak maldak ez dituenetz igo ezin nauela eraman komentatzen dit. Honela, autopistaren aldamean uzten nau. Urrutian (kilometro batera, mendiarren maldan) nire auzoko etxeen argiak ikusten dira. lepa, aurrera Virginia!

"Jaunak, Orson Wells mikrofonoan, karakterizazioa alde batera uzten dut, zuei guztiei "Munduen arteko gerra" Halloween-eko bromak bat besterik ez dela esateko. "Mercury Theatre"-eko saioan ezin ginen ohial batekin moztarotatu eta zuen gainera salto egin bildurtzeko. Buh! Honela, zerbait hobea egin dugu, mundua suntsitu dugu zuen belarrien aurrean eta Columbia Broadcasting System guztia hankaz gora jarri. Seguraski, hau benetan ez dugula egin eta biak sano daudela jakin ostean pisu bat kenduko zitzaizuen gainetik, ezta?"

Komilla artekoak "La Guerra de los mundos" 1938ko irrati erretrasmisioaren zerbait atal dira. Testu honetarako erabili izanaren arrazoia erraza da: pasa den astehenean, estralurtarrak ez, baina elurak bai inbaditu gintuela Bartzelonan. ©



Bazkideen partaidetzarekin Galtzaundik hartu beharreko norabideaz hausnarke-  
ta egingo da batzarrean

6

## Martxoak 24

# Galtzaundiren urteko batzarra

Iritsi da Galtzaundi Euskara Taldearen urteko batzarra egiteko ordua: aurten martxoaren 24an izango da, Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:30ean. Galtzaundiko talde eragileak batzar honetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu bazkideak.

Galtzaundi Euskara Taldeak urtero deitzen ditu bere bazkideak batzarrera. Egun, 344 bazkide daude eta guztiei gutun baten bidez helarazi zaie batzarraren deialdia. Bestalde, Galtzaundi aldizkaria bera ere erabili da batzarraren eguna eta ordua jakinarazteko. Era berean, eskualdeko beste komunikabideek ere emango dute deialdiaren berri. Izan ere, Tolosaldeko Euskara Taldeak ahalegin berezia egin du aurten, hain bilkura garrantzitsuan ahalik eta bazkide gehien biltzeko asmoz.

### Galtzaundiren egoitzatik kultur etxera

Ahalegin horren beste froga batzarraren leku-aldatzea da. Aurreko bi urtetan, Galtzaundi Euskara Taldeak Nafarroa Etorbidean duen

egoitzan egin zen bilkura. Deialdi haiek ez ziren arrakastatsuak izan. Horregatik, hasierako garaietan bezala, Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian biltzea erabaki da, leku publikoa izanik, jendea errazago hurbilduko den pentsamenduarekin.

### Aro berri bati ekiteko gogoa

Batzarraren deialdiak leloa ere izan du: euskaratik eta euskaraz. Maialen Lujanbio txapeldunak, BECen txapela jantzi eta gero kantatu zuen agurreko azken errimak ondo baino hobeto islatzen du Galtzaundi Euskara Taldearen asmoa: euskaratik (euskaingintatik) euskaraz bizi(ko) den herria sortzen jarraitzea. Horretarako, aro berri bati hasiera eman nahi dio Tolosaldeko Euskara Taldeak, non eskualdeko eus-

# 2

kalgintzako eragileak (bai elkarte eta bai norbanakoak) elkarrekin eta norabide berean lan egin behar duten. Horregatik garrantzitsua iruditzen zaio talde eragileari urteko batzarrean bazkideen presentzia eta ekarpenekin kontatzea.

**Etorkizunari buruzko hausnarketa**

lazko balorazioa egin, 2010eko jarduera plangintza finkatu, zuzendaritza izenda-

tu eta ohiko erabakiak hartzeaz gain, Tolosaldeko Euskara Taldeak hartu beharreko norabidea markatzea izango da xede nagusia. Beste era batera esateko, 2010eko batzarrak, Galtzaundi Euskara Taldearen etorkizunari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko tokia izan nahi du. Guzti honengatik, bereziki garrantzitsua izango da bazkideen parte hartzea.



## Kultur ekitaldiak



Martxoak 25

Ipuin kontalaria  
Anoetan

Idoia Sanchez-en saioa  
liburutegian. 18:30ean.



Martxoak 30

Irakurle taldea  
sortzeko bilkura  
informatiboa

Tolosako kultur etxean.  
20:00etan.

Galtzaundi 320  
10eko martxoak 19



**BENTA  
ALDEA**  
JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

T X O K O L A T E G I A

K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

shanti  
kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errrotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038







Biolur elkarteak Tolosaldean Kontsumo Taldea sortu nahi du, bertako herritarrei baserriko produktuak kontsumitzeko bide berri bat proposatuz

# Tolosaldean ere kontsumo taldea sortzen

9

“Nik hilean kuota bat ordainduko dizut; trukean, zuk, zure baserrian ekoiztutako garaian-garaiko barazkiekin betetako oterra emango didazu astero”. Era sinplean azalduta, hori da kontsumo talde batean kontsumitzaileek eta baserritarrak hitzartzen dutena. Bi aldeek hartzen duten konpromisoa ordea zabalagoa da: kontsumitzaileak produktu horiek erosteko konpromisoa hartzen du, eta ekoizleak, bere ekoizpena kontsumitzailearen nahietara moldatzekoa. Garrantasunean eta gertutasunean oinarritutako harremana da. Zuzeneko salmenta eredu honek Japonian du jatorria. Iparraldean oso zabaldua dago, Bizkaian ere indarra hartu du, eta Gipuzkoan badira adibide batzuk. Sistema gustuko baduzu, zu ere kontsumo talde bateko kide izan zaitezke. Martxoaren 24an, kontsumitzaileei zuzendutako hitzaldi informatiboa eskainiko du Biolur-ek. Zerkausion izango da, arratsaldeko 19:00etan.



Argazkia: Uztaro kooperatiba

10

Argazkia: Uztaro kooperatiba

Kontsumo taldeek indar handia hartu dute. Iparraldean AMAP "Alliance Midi-Pyrénées" elkarrekin biltzen dira; egun 17 talde daude. Nekasarea, EHNE sindikatuak sustatutako kontsumo taldeen Bizkaiako sarea da. Gipuzkoan, batez ere Deba Goiena eskualdean hasi dira salmenta zuzeneko bide hau erabiltzen. Eskualdetik gertu, Beizamako Uztaro Nekazaritza Kooperatibak ere kontsumo taldeak ditu Villabona, Andoain, Azkoitia, Zestoa eta Zarautzen. Baserriko produktuak kontsumitzeko bide berri honek, ekoizleei, kontsumitzaileei, eta ingurumenari ekartzen dizkion onurez jabetuta, Biolur-ek, Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarrekin, probintzian kontsumo

Kontsumitzaile taldeak sortzeko prozedura argi dute Biolur-en: lehenengo pausoa inguruko ekoizleak biltzea da. "Biolur-en ekoizpen ekologikoa egiten duten baserriak daude, baina, kontsumo taldeetan ekoizpen konbentzionala egiten dutenek ere parte hartu dezakete". Beraz bilera ekoizle mota guztientzat irekia egongo da. Elik gaineratu du, kontsumo taldeen praktika aukera bikaina dela ekoizpen konbentzionaletik ekologikora salto egiteko. Bigarren pausoa, kontsumitzaileei zuzendutako hitzaldi informatibo bat egitea litzateke. "Hitzaldi horretan, inguruko esperientzien berri emango dugu, eta ikusi beharko da ea jendea praktika honetan parte hartzeri animatzen den".

kontsumitzaile taldea eta ekoizleak adostu beharko dute, zer nolako otarra nahi duten, zenbaterako maiztasunarekin, eta zein modutan ekoiztea izatea nahi duten". Martxoaren 24ko hitzaldian sor daitezkeen taldea ez ezik, badira zenbait talde jada eginak daudenak: euskaltegiko taldea, eskulan ikastarokoa, lantegiko lan taldea... Horiek interes agertuz gero, Biolur-ekin harremanetan jarri besterik ez dute.

#### Bi aldean konpromisoa

Kontsumo taldea definitu beharko bagenu ondokoa litzateke egokiena: "nekazal produktu jakin batzuk gertuko baserri bati zuzenean erosteko osatutako taldeak dira, salmenta zuzena oinarritzat hartuta, elkarlana adosten dutenak". Aldiz, kontsumo taldeen izaera hitz batean azaltzeko, "konpromiso" hitzak islatuko luke ondoen. Kontsumitzaile taldeak baserri bati bere produktuak erosteko konpromisoa hartzen du, hilean behingo kuota bat ordainduz. Baserriak berriz, astero kontsumitzaileek eskatutako produktuez betetako otarra, taldeak jarritako baldintzetan ekoizita entregatzeko ardura hartzen du. Arestian aipatu bezala, "ekoizpenak ez du zertan ekologikoa izan behar, baina dinamika hauetan parte hartzen duten pertsonen garrantzia handia ematen diote elikadurari eta litekeena da ekoizpen ekologikoa lehenestea".

Kontsumitzaileen eta ekoizlearen arteko harremana garrantzitsua eta gertutasunean oinarrituta dago. "Nahi izanez gero, kontsumitzaile baserri



Kontsumitzaileak garaian garaiko produktuekin betetako otarra jasoko du astero.

taldeak sustatzeko apustua hartu du beregain. "Une honetan Azpeitian ari gara kontsumo taldea sortu nahian. Prozesu hori martxan jarria dugu dagoeneko; orain, Tolosaldean bultzatu nahi dugu", azaldu du Eli Trojaola Biolur-eko teknikariak.

Hitzaldi horrek eguna eta ordua jarrita dauzka: martxoaren 24an, arratsaldeko 19:00etan izango da Tolosako Zerkausian. Azken pausoa, interesa agertzen duten kontsumitzaile eta ekoizleak biltzea da. "Behin harreman hau gauzatuz gero, hortik aurrera



Galtzaundi 320  
10eko martxoak 19

gerturatu daiteke eta berak jaten dituen elikagaiak nola ekoizten diren ikusi dezake". Baserritarrak, garaian garaiko produktu aukera zabala izango du bere baratzean. Hori bai, kontsumitzaile guztiek otar bera jasoko dute, denen artean adostutakoa, berezitasunik gabe. "Hasiera batean barazkiak sal-erosten hasten dira, baina gero, otarra zabaltzen joaten da, fruituak, haragia, esnekiak eta abar sartuz". Produktuak, hilero ordaindu beharreko kuota, otarra entregatzeko eguna zein modua eta abar, kontsumitzaile taldeak eta ekoizleak adosten dute.

#### Onura ugari

Dinamika hau horrenbeste indartu bada, eskaintzen dituen onurengatik da. Bai kontsumitzailearentzat, bai baserritararentzat eta baita ingurugiroarentzat berarentzat ere mesedegarri gertatzen da kontsumo taldeen praktika.

Hasteko, salmenta zuzenak berarekin dakarren abantaila eskaintzen du: kontsumitzaileak egunean bertan baratzetik jasotako produktu fresko eta kalitatezkoak eskuratuko ditu, eta bitartekaririk ez egotean, supermerkatuan baino merkeago; era berean, baserritarrak bere produktuak prezio duin batean saldu ahal izango ditu.

Kontsumitzailearen aldeko beste abantaila bat, gardentasuna eta gertutasuna da: "konfidantzako harreman bat dago oinarrian. Jan behar duen produktu hori nola ekoizten den ikusteko aukera du". Produktuen aukera zabaltzen joango da gainera. Denak otar batean jasoko lituzke, astean behin.

Baserritarrari ere abantaila



"Kontsumitzaile taldeak baserritarrari bere produktuak erosteko konpromisoa hartzen du, hilean behingo kuota bat ordainduz. Baserritarrak berriz, astero kontsumitzaileek eskatutako produktuez betetako otarra, taldeak jarritako baldintzetan ekoizita entregatzeko ardura hartzen du"



asko eta garrantzitsuak eskaintzen dizkio: Garrantzitsuena, bezero talde finko bat edukitzeko aukera da. "Baserritarrentzat sekulako lasaitua da lantzen ari den produktua salduta dagoela jakitea. Gainera, eskaera zein den jakinda bere produkzioa planifikatu dezake". Honek bezainbeste balio du ordea, kontsumitzaile taldearengandik baserritarrak jasotzen duen errekonozimendua. Honen inguruko hausnarketa Tolomendiko Iker Karrerak egin du, Tolomendi ere kontsumo taldeak bultzatzeko apustura batu baita: "Kontsumo taldeek baserritarren ekoizpena humanizatu egiten dute. Izan ere, baserritarrak, askotan ez du jakiten berak landutako produktua nora eramaten duten. Esne ekoizleek

kasua adibide garbia da: kamioia etortzen da ukuilura, maitasunez ekoiztua izan den esnea sartzen du tankean eta badoa; baina ez daki nora, eta baserritarrak ez du errekonozimendu hori jasotzen kontsumitzailearengandik". Honela, nekazari eta abeltzainen lana lan marginatua dela, gizarteak ez duela kontutan hartzen uste du. "Baserritarrak bakarrik aurkitu izan dira lur galeren aurrean. Urbanizazio bat edo azpiegitura erraldoi bat dela eta, lurra kendu diotenean ez du inoren laguntzarik eduki. Nolabait, kontsumo taldeen dinamika, gizarteak baserritarren lurra bere sentitzea dakarki. Babes estrategiko hori lortzea oso garrantzitsua da sektorearen bizi-raupenerako".

Ingurugiroaren aldetik berriz, dinamika honek plastikoa eta bestelako eduki-ontzien erabilera murriztuko luke. Bestalde, elikagai buruzko jakituria berreskuratuko luke gizarteak. Hau da, nahiz eta supermerkatu handietan produktu guztiak urte osoan zehar salgai egon, jakingo luke, elikagai bakoitzak bere sasoia duela.

Onura asko dira kontsumo taldeen praktikak ekartzen dituenak. Zuk ere abantaila hauetaz gozatu nahi baduzu, oraintxe daukazu aukera bikaina. Parte hartu nahi?



## Kontsumitzaileei zuzendutako hitzaldi informatiboa

Eguna: Martxoak 24  
Ordua: 19:00  
Lekua: Tolosako Zerkausia

# Xirimiri

Txokolategia  
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**ibarra**  
Argi-Lanak

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5  
20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878  
Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60



galtzaundi

Jarri publizitatea

Galtzaundi  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6. 20400 Tolosa  
Tel. 943 655 004  
publizitatea@galtzaundi.com  
www.galtzaundi.com

J. San Sebastian  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141





# Errezilgo Irure Txiki Baserria

## “Gure ekoizpen ereduarekin bat datorren jendearentzat ekoiztu nahi dugu”

Leire Zubeldia

Euren baserriko lurrak ematen duenetik hornitu daitekeen familia bat bezala ulertzen dute kontsumo taldea Joxerra Agirre eta Arrate Otaegik. Familia hori osatu nahian dabilta orain. Irure Txiki baserrian produktu ekologikoak ekoizten dituzte, eta ekoizpen eredu hori elkarbanatzen duen jendea eduki nahiko lukete familia horretan. Asteroko otarra ez ezik, euren ekoizteko modua ikusi, eta elkarlanerako aukera eskaini nahi dute. Tolosan sortu nahi dute familia horietako bat.

**Noiztik zabilzate baserriko lanetan?**

**Joxerra Agirre:** Ni kalekoa naiz eta Arrate ere bai; baina betidanik izan dut lurrarekin lotura. 18 urte nituela edo, sagasti handi bat aldatu genuen eta geroztik mantendu egiten dugu. Duela bost urte etorri ginen baserrira. Orduan hasi ginen lurra gehiago lantzen: sagar gehiago, baratza... Hasieran guretzako egiten genuen, orain kanporako ere hasi gara.

**Arrate Otaegi:** Biologia ikasi nuen nik eta irakaskuntzan aritu nintzen urte batzuetan, batez ere ingurugiroaren alorrean. Haurra izan nuenean nakazaritza ikasketetan sakontzera pasa nintzen. Geroztik, eskolekin baratza mintegiak egiten ibili nintzen. Gero hona etorri ginen. Ordurako ogia egiten ere ikasi nuen, eta labe bat eraiki genuen baserrian, etxerako

eta inguruko baserrietarako ogia egiteko. Beraz, baserrira etorri ginen hartan, ogia, baratza, sagastia, oiloak eta oilaskoak genituen.

**Noiz igaro zineten, baratzan etxerako egitetik kanporako ere egitera?**

**A.O.:** Lehenik sagastiarekin eta gero ogiarekin hasi ginen kanporako egiten. Hori, duela lau bat urte izan zen. Arrautzak ere ugaztzen hasi zirenean jende ezagunari saltzen hasi ginen. Ordutik denbora batera, ondoko baserri batekin elkarlanean kontsumo talde bat lortu genuen Donostian. Beraiek barazkiak eta esnea jartzen zituzten otarrean, eta guk gure produktuetatik jartzen genuen. Gerora atera egin ginen talde horretatik, eta guk gure kontsumo taldea sortzeko ideia jorratzen hasi ginen. Iaz ekin genion barazkiak ekoizteari.

Gure asmoa, lur honek ematen duenetik elikatu daitekeen familia osatzea da; ez litzateke bertan biziko, noski, baina hemendik hornituko litzateke. Horrela ulertzen dugu kontsumo taldea. Familia hori ahalik eta gertuenekoa izatea nahi dugu: Tolosa edo Azpeitiakoa.

**Familia hori bilatzen hasi zarete dagoeneko?**

**A.O.:** Bai, lehenengo sarrera Tolosako Sanmaniego eskolan egin genuen. Bertako irakasleei gu astero joan eta otarra eramateko eskaintza egin genien. Otarrak ogia, oilaskoa, arrautzak eta sagarkiak zeramatzen.

**Taldea osatzea lortu al zenuten?**

**J.A.:** Lau-bost pertsonarekin hasi ginen. Hori udaberrian izan zen. Udazkenean beste pauso bat eman genuen, ondoan dagoen

Orixen institutuan gauza bera eska-  
kainiz. Horrela, sakabanatutako  
bezere pertsonalak ditugu: Az-  
peitian lau, Donostian beste lau,  
Tolosan beste lau, Anoetan bi...  
Oso sakabanatuta ditugu, eta  
banaketa egitea asko kostatzen  
zaigu. Horregatik mugatu nahi  
dugu ingurura.

A.O.: Baina horiek ez dira kont-  
sumo taldeak, bezere indibidua-  
lak dira. Nik uste dut, trantsizio  
momentu batean gaudela. Bana-  
kako horiei taldeko izaera eman  
nahi diogu. Horretarako pausoak  
ematen ari gara. Adibidez, duela  
gutxi Tolosako Udal Euskaltegian  
hitzaldi bat eman genuen. Proze-  
su mantsoa da.

Ikastetxean eta euskaltegian  
nola hartu dute zuen eskaintza?

A.O.: Ikastetxean, atsedendaldi  
orduan hamaiketako ekologikoa  
eskaini genien irakasleei gure  
produktuak dastatzeko. Oso gus-  
tura hartu zuten hori, eta gainera,  
interes handia erakutsi zuten pro-  
duktuen ekoizpenaren gainean.  
Eskertza ere adierazi ziguten gure  
proposamena era horretan aur-  
kezteagatik. Batzuei zaila iruditu  
zitzaieen dinamika hau praktikara  
eramatea. Norberak bere bizitza  
eta ohiturak ditu: jende askok du  
bare baratztatzea edo baserrian  
bizi den ezagunen bat; zenbaitak  
ez du sukaldean aritzeko ohitura-  
rik ere...

J.A.: Leku guztietan oso ondo  
hartu gaituzte. Gero animatzen  
diren edo ez beste kontu bat  
da. Gurekin daudenak oso gus-  
tura daude. Gainera, banakako  
bezereak ditugunez, etxeraino  
eramaten diegu otarra, eguneko  
genero freskoarekin beteta. Gure  
lana oso estimatua dela sentitzen  
dugu. Eskertuta sentitzen gara.

Errekonozimendu horrek garran-  
tzia handia du zuentzat...



Joxerra Agirre, Arrate Otaegi eta euren seme Ibai arraultzak biltzen.

A.O.: Asko betetzen gaitu ho-  
rrek. Beste sistema bat aukeratu  
genezake, baina hasieratik argi  
genuen, gure ekoizpen eredu  
konpartitzen zuten bezereont-  
zat ekoiztu nahi genuela. Gure  
proposamena toki batean azal-  
tzen dugunean, filosofia hau  
elkarbanatzen duen jendearen  
bila joaten gara. Bada jendea  
supermerkatuan erosita oso  
gustura dagoena. Guk ez dugu  
jende mota hori nahi. Ikusten  
dugu, gaur egun badagoela  
jendea asko estimatzen duena  
produktua kalitatezkoa izatea,  
bertakoa izatea, garaian garaikoa  
izatea, zeinek ekoizten duen jaki-  
tea, ekoizpenaren lekura joateko  
aukera izatea... Guzti hori nahi  
duen jendeari "hemen gaude"  
esatera joaten gara. Asko balora-  
tzen dugu, jendea gustuko duen  
moduan ekoiztutako produktua  
jaten ari dela sentitzea.

Zein produktu dituzue otarrear-  
sartzeko?

J.A.: Ogia, arrautza, oilaskoa, oi-  
loa eta barazkiak. Barazkietan ga-  
raian garaiko produktuak ditugu.  
Gero sagarkiak daude; eta bere  
sasoian babarrunak ere bai.

Zuen asmoa kontsumo taldeeta-  
tik bizitzea al da?

A.O.: Bai.

Eta zenbat kontsumo talde  
beharko lirateke horretarako?

A.O.: Familiaren arabera.  
Gu familia bat gara, bi ume  
ditugu. Kalkuluak egiten ari  
gara, zenbat pertsonarentza-  
ko ekoizpena izan dezakegun  
jakiteko. Lurrak zenbat jende-  
rentzat ematen duen eta gu  
bion artean zenbat lan atera  
dezakegun ikusi behar dugu.  
Badakigu orain ekoizten du-  
guna baino askoz ere gehiago  
ekoiztu dezakegula.

J.A.: Hogeita hamar perso-  
na hornitzeko modua badugu.  
Hortik gora ez dakigu zenbate-  
raino egin genezakeen. Lurrak  
emango luke, baina guk lurra  
zaindu egin nahi dugu eta ore-  
ka baten barruan ibili. Neurtu  
egin beharra daukagu.

Nolako funtzionamendua duzue  
egungo bezereekin?

A.O.: Asteroko banaketa egiten  
dugu astearteetan. Ordainketa  
berri, astero edo hilean behin  
egiteko aukera ematen diegu.



Etxez-etxe banatzen dugu guk.  
Kostu handia du horrek; gure as-  
moa leku finko bat aurkitzea da,  
otarrek bertan utzi eta bezereak  
bertatik hartu ahal izateko. Ira-  
kasleen kasuan ikastetxean uzten  
dugu eta kito.

Hiru otar eredu ezberdin ditu-  
gu. Bakoitzak bere gogoko otarra  
aukeratzen du. Hori bai, aste ba-  
tetik bestera otarrez ez aldatzea  
eskatzen dugu, horrela lana au-  
rreikusita eta planifikatu baiteza-  
kegu.

Zer da kontsumo taldeetatik  
gehien baloratzen duzuen?

A.O.: Kontsumitzaileen eta  
ekoizlearen arteko elkarlana: au-  
zolandegiak egitea, gu bisitatzeko  
aukera izatea, nola ekoizten  
dugun ikustea... Oso garrantzi-  
tsua iruditzen zaigu hori. ©



Alegiako Udalak eskolako uhin  
elektromagnetikoen neurketa egingo du.

# Uhin elektromagnetikoak: noraino

Eusko Jaurlaritza EAeko ikas-  
tetxeetako 5. mailan Eskola 2.0  
proiektua martxan jartzera doa.  
Ikasle horiek erabiliko dituzten or-  
denagailuak WiFi bidez konektatu-  
ko dira Internet sarera, eta horrek  
uhin elektromagnetikoen inguru-  
ko eztabaida piztu du. Horren ha-  
rira, eremu elektromagnetikoetan  
aditu den Asier Arregik WiFi-aren  
eraginei buruzko hitzaldia eskaini  
zuen Alegian, eta, besteak beste,  
higiene elektromagnetikoaren  
garrantziaz mintzatu zen.

Amaia Goikoetxea

12

Uhin horiek erabiltzen dituzte  
egun hain geureganatuta ditu-  
gun telefono mugikorrek ere.  
Hasteko, datu esanguratsu bat:  
Espainiar estatuan 4.500 miliwatt/  
metro karratutan dago telefonia  
mugikorreko uhinen frekuen-  
tziaren muga. Salzburgon, aldiz,  
miliwatt bakarrean dago muga  
hori, 4.500 aldiz gutxiago. Alde  
handiegia, inondik ere, biak ego-  
kiak direla pentsatzeko. Estatuko  
legearen arabera, beraz, 4.500 mi-  
liwatt baino gutxiagoko uhinen  
frekuentziapean ez dago arrisku-  
rik. Beste zientzialari askok, ordea,  
muga horren azpitik dauden uhin  
elektromagnetikoek ere efektu  
biologikoak dituztela defendat-  
zen dute.

Gai honetan aditu den Asier  
Arregik eremu elektromagne-  
tikoak zer diren azaldu zuen  
Alegian eskainitako hitzaldian.  
"Uhin elektromagnetiko bat  
olatu baten antzeko zerbait  
da, gora eta behera dabilen  
zerbait. Zati positibo bat eta  
negatibo bat ditu, eta errit-  
mo batean, abiadura batean  
mugitzen da. Erritmo horri  
frekuentzia deitzen diogu, eta  
frekuentziak adierazten digu  
uhin horrek segundu batean  
zenbat aldiz egiten duten gora  
eta behera. Adibidez, argi indar-  
rak 50 hertziotako frekuentzia  
daukala esaten da, alegia, se-  
gundu batean 50 aldiz pasa-  
tzen da positibotik negatibora,  
50 aldiz betetzen du ziklo bat.  
Irrati uhinek, esaterako, fre-  
kuentzia altuagoa dute, hortik  
gora telebista legoke, gorago  
telefonia mugikorra, gorago  
WiFi-a..."

Efektu termikotik haratago?

Berotasuna da frekuentzien  
muga ezartzeko erabiltzen den  
irizpidea. Mikrouhin labeen adibi-  
dea jarri zuen Arregik hori azaltze-  
ko. "Jaki bat labean sartzen dugu-  
nean uhinek jaki hori zeharkatzen  
dute, eta uhin bakoitzak jakia  
zeharkatzen duen bakoitzean po-  
laritatea duten molekula guztiak,  
ura gehienbat, birpolarizatu egiten  
dira. Mugimendu txiki hori nahikoa  
da berotasuna sortzeko. Labeko  
jakian bezala funtzionatzen dute  
uhin elektromagnetikoek gure  
gorputzean. Beraz, gu %70 ura  
garela kontuan izanda, argi dago  
efektu termiko hori badagoela".

Zientzialari askok diote efektu  
termiko soila dela uhin elektro-  
magnetikoek gorputz bat zehar-  
katzean sortzen dutena, eta ez  
dela ezer gertatzen tenperatura  
gradu batzuk igotzeagatik. Baina  
ba al dago bestelako eraginik?  
"Askok ez dagoela diote, ezin dire-  
lako demostratu. Gertatzen dena  
da efektu biologikoak %100ean  
demostratzea ez dela oso erraza;  
izan ere pertsona batengan eragi-  
na izan dezakete, eta beste baten-  
gan ez hainbeste, ezberdinak bai-  
kara eta parametro asko sartzen  
baitira jokoan. Emaizak orokortu,  
ez, baina horretarako daude es-  
tatistikak, eta estatistikak erakus-  
ten du uhin elektromagnetikoek  
bestelako eraginik ere badutela  
guregan".

Eragin horiek buruko minetik  
hasi eta minbiziraino iritsi omen dai-  
tezke. "Nekea, haserretzeko erraz-  
tasuna, goragalea, gosea galtzea,  
gaizki lo egitea... izan litezke hasie-  
rako sintomak", zioen Asierrek.



Internet sarera konektatzeko  
WiFi sistemak uhin elektromag-  
netikoen bidez funtzionatzen du.





# heltzen da euren eragina?

## Higiene elektromagnetikoa

Uhin elektromagnetikoen gugan izan dezaketen eragina gutxitzeko hainbat neurri har daitezkeela adierazi zuen Asier Arregik. Esaterako, WiFi-a pizturik badago, nahiz eta informazio trukaketarik ez egon, uhinak emititzen ari da; eta noski, informazio trukaketa dagoen kasuetan, emisioa altuagoa da. Horregatik, gauetan WiFi-a itzaltzea gomendagarria da. Telefono mugikorren antenek ere gau eta egun emititzen dute, eta antena horietara konektatzen diren telefonoen arabera aldatzen da emisioa. Horregatik, antena baten emisioa neurtzen den momentuak garrantzi handia du, gauetan jendeak telefonoz gutxiago hitz egiten duenez, emisioa jaitsi egiten baita; baina ez da desagertzen. Mugikorra piztuta izanda,

erabili gabe, uhinaren emisio hori estimulatu ari gara. Horregatik, gauetan mugikorra itzaltzea ere uhinaren eragina gutxitzeko beste modu bat izan daiteke. Asierrek azaldu zuenez, uhin elektromagnetikoen eragin handiagoa dute gugan lo gaudenean, eta horregatik da komenigarria lotarakoan uhinak emititzen dituzten aparailuak itzaltzea.

Higiene elektromagnetikoa deiturikoaren barruan sartuko lirateke horrelako neurriak, horiek eta beste hamaika. Arregik azaldu zuenez, errusiarrek hainbat gomendio dituzte mugikorraren erabilpenerako, adibidez, hiru minutu baino gehiagoz mugikorratik ez hitz egitea, denbora horretatik aurrera burmuinean dugun babes-geruza bat zulatzen hasten baita. Horrez gain, deien artean hamabost minutuko atsedena egitea ere gomendatzen dute,

tarte horretan aipaturiko zulo txor horiek gorputzak erregeneratu baititzake. Eta dirudenez, geruza hori zulatuta gabe mantentzea garrantzitsua da, buruko gaitzetan eta tumorazioetan funtsezko babes bezala funtzionatzen baitu. Hamasei urtera arte mugikorrak ez erabiltzea ere aholkatu zuten errusiarrek, gerora adin hori hehezortzira igotzen diren txikiengan eragin handiagoa dute uhin elektromagnetikoen.

## Neurketak eskolan

EAEko ikastetxeetako 5. mailako ikasle guztiek bezala, Alegiak ere Internet sarera WiFi bidez konektatuko diren ordenagailuak izango dituzte; hori dela eta, Udalak uhin elektromagnetikoen horien frekuentzien neurketak egingo dituela iragarri du, WiFi-ren uhinak zein baloretan dabilzan jakiteko. ©

**ZALBIDE**  
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**kutxa**

**Arretxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor  
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

**Juan Larrazpu**  
eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko esturturetan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:  
- Fatxadak - Teillatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnua: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

# Ibarrako Gaztetxea

## Belaunaldiz belaunaldi gazteen topagune

Felix Aiestaran

Ibarrako gaztetxea, herrian hogeita hamar urteko tradizio luzea duen Gazte Asanbladaren haritik sortu zen duela hamasei urte. Hasieran Udalarekin ostiraletan biltzeko tokiaz hitz egin zen, aste-buruetarako gero, eta azkenik gaztetxe modura finkatu zen. Ibarrako gaztetxeak Gazte Asanbladari falta zitzaion toki egonkorra eman zion, betiko Gazte Festak, hitzaldiak, aste kulturalak... antola zitezien. Alor ekonomikoa edo lokalaren garbiketa erabakitzeke funtzionamendu asanblearioa dute. Kultur Astea egin berri dute eta esku artean dute Lizarrako gaztetxearekin senidetzeko egitasmoa. Maier Lopetegi eta Aitziber Zabalak gaztetxearen sorrerako belaunaldi-koen berri eman ziguten eta Xabier Baztarrika eta Mikel Agirrezabalak gaurko gaztetxearen bizipenez hitz egin ziguten.

Zer dira Ibarrako gazte festak gaztetxearentzat?

Lana esan nahi du guretzat. Aurretik eta festa garaian ere lan handia egin behar izaten da: aurretik, Gazte Asanblada bildu eta lanak banatzen ditugu. Dirua autogestionatu egiten dugu barra eta txosnen bidez. Betiko ildotik haurrentzat jolas eta pailazoak, kontzertuak, bertso saioa eta herri afariak izaten dira.

Zein da Ibarrako Gazte Festen berezitasuna?

Urteko lehenengo festak

izaten dira. Bestetik jende ugari biltzen da, lanean ere jende asko aritzen delako. Parte hartze zuzena dugulako, Gazte Festak oso gureak sentitzen ditugu. Goitik behera gazteek antolatutakoak dira.

Udalak zenbateko diru laguntza ematen du?

Gazte Festetarako Udalak eszenatokia eta beste azpiegiturak jartzen ditu; ez du dirulaguntzarik ematen.

Noiz sortu ziren Gazte Festak?

Aspaldikoak dira. Aitak

kontatzen digunez Los Luises izeneko eliz taldeak Antolatu-tako Gazte Festak egiten zituzten. Gure aurretik elizatik kanpo Gento eta horiek aritzen ziren.

Gaztetxea gazte guztien topagunea al da?

Ez dira gazte guztiak inguratzeko, beti saiatu izan gara denen bilgunea izaten. Hasiera hartan jende asko biltzen ginen, baina ostiralero biltzeko konpromisoa ere eskatzen zuen. Gaur egun hamabost biltzen bagara, garai hartan hogeita hamar biltzen ginen ostiralero.

Belaunaldien artean lekukoa ematea zaila izaten al da?

Gaztetxean ez da leku korrik ematen: batzuk sartzen direnean ez dira aurrekoak ateratzen. Sartu berriei ardurak hartzea zailagoa egiten zaie. Hasiera haietan astakeria ederak egin genituen: barra librea jarri genuen. Justu atera ginen, baina halaxe ikasi genuen. Hurrengoan ez genuen halakorik egin, noski. Alor ekonomikoa zaintzen ikasi behar izaten da; bestela gure egitasmoak ezin go dira gauzatu. Ardurak betiko bost lagunek hartu behar izaten dituzte.

Nola osatzen duzue urte osoko kultur jarduera?

Gogoaren arabera antolatu genituen saioak. Hasiera hartan, Luis Elberdin sexologoa, Pepe Rei eta Emeterio Sorazu apaiza etorri berria zela, berak ere eman zuen Euskal herriko Historiaz hitzaldia Ibarako Gaztetxean. Garai hartan hitzaldietan elizako katekesiko aulkiak erabiltzen genituen; ez dakit zergatik ez uzten hasi ziren; orduan apaizari proposatu genion hitzaldia ema-

tea eta etorri egin zen. Guretzat ezezaguna zen, baina antropologoa zela eta deitu egin genion, eta oso ondo atera zen. Gaur egun momentuan erabakitzen dugu zer antolatu. Talde berriei jotzeko aukera eman nahi izaten diegu. Beste kultur alorreire ere tokia egiten diegu: urtean pare bat bertso saio, hitzaldiak, antzerkiak... egiten ditugu.

Zein toki du gaztetxeak herri barruan?

Gazteei begira ez da kultur eskaintza handirik. Droga edo sexuari buruzko hitzaldirik ez dago. Ibarren kontzertuak festetan ere ez dira egiten. Festetan kontzertu potenteak egiteko proposamenak egin izan ditugu baina ez dituzte aintzat hartzen. Behar horiek betetzen saiatzen gara.

Zer moduz moldatzen zarete bizilagunekin?

Graffiti egin genue-

nean arazoren bat izan zen: etxea pintatu berria zegoela, garffitigile katalan batzuei sarrerako kanpo aldean margotzeko aukera eman genien eta orduan bizilagunekin izan genuen gorabeheraren bat, baina bestela ongi moldatzen gara.

Herritarren aldetik zein harrera duzue?

Oso ona. Ezagutzen ez gaituztenek izan dezakete, droga eta ez dakit zerekin lotzen gaituzten uste ustelak, baina ezagutzen gaituzten heinean bere iritzia aldatu egiten dute. Egiten ditugun ekitaldietan herritarren laguntza izaten dugu, patata tortila egiteko ekitaldi edo beste edozein izan. 95eko itxialdietan emakumeak bere erosketak eskuan zituztela bisitan etortzen zitzaizkigun. Laguntza eskatu izan dugun aldioro

jaso izan dugu.

Nola antolatzen dituzue kontzertuak?

Ekarri nahi dugun taldearekin harremanetan jarri eta gero Miguel Asensioren kartel berezi horiek jartzen ditugu. Garai batean kartelak errotuladorez, eskuz egiten genituen. Gaur egun web orria ere badugu. Eszenatokia prestatu, dena txikundu, taldekoentzat afaria antolatu... lan ugari pilatzen da.

Zein berezitasuna dute gaztetxe kontzertuek?

Berri Txarrak, Su ta Gar, La Polla, Etsaiak, Baldin Bada... inguruko





talderik hoberenak pasa dira. Toki bilduagoa da eta taldeek dena ematen dute. Saiatu izan gara kontzertuak kanpoan, frontoian egiten, baina soinu alde-  
 tik desastre hutsa izaten da eta azpiegitura jartzeko udalaren laguntza behar da, ekonomiko-  
 ki ere arazoak izaten ditugu... Gaztetxeko kontzertuek berotasun handiagoa izaten dute. Taldeak ere oso gustura ateratzen dira gaztetxetik. Lehen emanaldia Gozategirekin egin genuen; plazan eginez gero, ez dakit nola izango zen, baina gaztetxean denak dantzan jarri gintuzten. Garai hartan talde-

Baina jende aurrean emanaldiak egiteko egile eskubideen taldeari ordaindu egin behar denaren agindua iritsi zitzaigun audientziatik eta bertan behera utzi behar izan dugu. Beti lau zeregin garrantzitsu izan ditugu urtean zehar antolatze-  
 ko, besteak beste, gazte festak... gero sortzen direnak antolatzen dira: hitzaldiak, antzerki saioak... Gogoan dut Pepe Rei ekarri genuela.

Zer nolako harremanak dituzue erakundeekin?

Ibarrako udalak ez du ezer egiten. Lagundu beharrean oz-

norbaiti deitu ahal izateko. Zirriborroa pasatzen dugutenean aztertuko dugu.

Gaztetxeen artean nolako elkarlana duzue?

Gaztetxe bakoitza mundubat da. Bestela ez dago lotura egituraturik. Beti joan izan gara beste gaztetxeetara eta gurera ere etortzen dira. Alegi eta Izaskungo gazteak gure festetara etortzen ziren guri laguntzeko eta gu gero bere festetara joaten ginen lanera. Zarauztik informazio bila ere etorri ziren. Gaur egun Anoetako Gaztetxearekin dugu harremanik handiena. Ekitaldi ugari antolatzen ditu eta AHT aurkako elkarlana egin genuen. Gero, gazte festak eta bere herrikoak egun beretan jarri genituen, baina... Euskal Herriko gaztetxe koordinazioa badago, baina ez dugu parte hartze handirik bertan.

Nolakoak zarete gaurko gazteak?

Aurreko belaunaldikoek Play Station belaunaldia deitzen digute; nik inoiz ez dut bat izan baina... Bertako gazteak ikasten ari dira: bakarrak lan egiten du.

Tokia egokia al da?

Ondo dago. Kontzertu handietan ttiki geratzen da, baina egunerokorako toki oso egokia da. Araneko etxe batera bidaltzeko saiakerak izan ziren udalaren aldetik, baina gaztetxea plazaren ondoan, herri erdian egotea ondo dago.

Zergatik dira beharrezkoak gaztetxeak?

Gazteen aisialdiari beste erantzun bat ematen zaio. Gaztetxea, geuk gure gauzak anto-

latzeko beharrezkoa da. Geuk kudeatutako zerbait da eta ardurak norbere gain hartuaz asko ikasten da. Koadrila desberdinetako laguneren artean harremanak izateko egokia da. Elkartzeko ez genuen elkar deika aritu beharrik. Gaztetxera etorri eta beti egoten zen norbait. Hori oso aberatsa da lagunartea egin eta batera ibiltzeko. Gazteak etxean telebista eta ordenadorean arituaz itxi beharrean, gaztetxean gaztea ireki egiten da. Gentorekin batera parranda ugari eginda gaude. Lagunekin bildu eta gustuko ditugun ekitaldiak antolatze-  
 ko tokiak dira gaztetxeak.

Zer da Piparmin?

Piparmin gaztetxeko belaunaldi desberdinak elkartzeko ekitaldia da. Bi urtean behin egiteko asmoaz hasi ginen. Bertan Gentotik hasi eta gazteen artekoak biltzen gara. Gaztetxeak belaunaldien arteko elkarbizitza egiteko aukera eman du.

Zein izan dira gaztetxeko emanaldirik gogoangarrienak?

Emeterio apaiza, Pepe Rei egon zirenekoak gogoan ditugu, baina duela gutxi Josu Gabellanesi Kubara musika ikasteko joan behar zuela eta kristoren despedida egin genion gaztetxe barruan. Piparmin lehenbiziko saioa oso polita izan zen, plazan belaunaldi desberdinetako jendea jolasetan parte hartzen ikustea. Emanaldi ugari izan dira bereziak Berri Txarrak eta Su ta Gar-enak gogoratuko genituzke. Gozategiren emanaldiak bereziak izan ziren eta gaztetxeko parrandak bereziak dira. Urte Zahar gauean ere bertan biltzen gara.



"Piparmin gaztetxeko belaunaldi desberdinak elkartzeko ekitaldia da."

kin harremanetan jartzeko ez zegoen e-mailik, kabinako telefonotik deika aritu behar izaten genuen.

Nola osatzen duzue kultur eskaintza?

Ez dago erraza ezer antolatzeko. Zine emanaldiak prestatu izan ditugu, udan plazako udal-  
 letxeko frontoi pareta pantaila modura erabiliak. Leku irekietan gaztetxean baino jende askoz ere gehiago biltzen zen.

topoak jartzen ditu. Lehengo urtean Los Cuarenta Principalesen festa antolatu zuen San Inazio Auzoan, dirutza handia xahutuaz. Udaletik bilera egiteko deitu ziguten 1995etik sinatuta dagoen Udala eta Gaztetxearen elkarlanerako hitzarmenaz. Hamasei urte behetik alkohola ez emateaz, gaztetxeko aforoaz... Eusko Jaurlaritzan estutzen ari zela eta hiru laguneren sinadura eskatu ziguten, zerbait gertatuz gero

## Irakurlearen begietatik



Jone Gorostarzu  
Irakurlea

Zer da denbora? Ze balio du? Mugatu, moztu, zatitu al daiteke denbora? Eta, gurea al da? Edo, gu geu ote gara denboraren jostailu hutsak? Ginena gara? Garena izango? Mila dira erantzunik gabeko galderak, ustez erlojua eta egutegiaren bidez neurtu, menperatu asmo dugun denboraren inguruan. Milaka berak sorrarazi ohi dituen sentipen naiz pentsamenduak ere. Nor ez da haserretu inoiz denborarekin, batzuetan etortzen ez delako, eta, besteetan, ordea, azkarregi egiten digulako ihes eskuen artetik? Are gehiago, nor ez da beldurtzen denboraren aurrean, igarotakoa aldaezina delako, eta datorrena, berriz, ezezaguna?

# Karmele Igartua, Denbora enaren hegaletan

2007an "Hitzak orbainetan" bere lehen poema liburuarekin Felipe Arrese Beitia saria eskuratu ostean bigarren lanarekin etorri zitzaigun iaz Karmele Igartua, "Denbora enaren hegaletan" izenburupean argitaratutako olerki bilduma hau eskaini zigularik. Liburu eder honetan denboraren zein hau bizitzeko eta ulertzeko moduen inguruko ideia eta hausnarketa sorta aurki dezakegu, heriotza eta maitasuna bezalako beste gai unibertsal batzuekin batera. Olerki nahiko motzak dira denak bi zati nagusitan egituratzen den lan honetan (Denbora jauziak: ekartzen gaituztenak eta Geratzen diren denborak: lekutzen gaituztenak), sarrera edo aurkezpen moduko lehen olerki solte baten ostean.

Formari dagokionez, berriz,

hizkuntza argia, zuzena eta gertukoa erabiltzen du Igartuak, honekin mezuaren ulermena errazten duelarik, eta olerki gehienetan zuka zuzentzen bazaigu ere, tarteka badira hika idatzetako testuak ere. Aipagarria, bestetik, esaldiekin, letren tamainarekin eta hauek espazioan kokatzeko moduarekin jolas egiten duela, sarri gidoiak erabiliz esaldiak erditik banatuaz, halako musikaltasun eta erritmo berezi bat emanaz irakurketari.

Denborarekin dugun hartu emanak eta hau bizi zein ulertzeko moduak gure izaerarekin zein zoriontasunarekin lotura estua du, eta aberatsa gerta daiteke horretaz hausnartzea. Horrela, oso gustuko izan ditut liburu honetako zenbait olerki, hala nola Izarretaraino! deitua,

borobilen nire aburuz, nolabait ere carpe diema aldarrikatzen duen poema motz bezain zoragarria. Izan ere, zenbat aldiz itxaron diogu ia heltzear behar zuen denbora bati, existitzen ez den denbora horri, ustez gerturatu arren inoiz iristen ez den horrexeri, hark halako poz edo zorion bereziren bat ekarriko zigulakoan... eta bitartean, tasmalez, ihes egin ohi digu gure denborak, benetako denborak.

Honen antzeko burutapen ugari iradokitzen ditu liburuak, eta hori dena, izenburutik bertatik hasita, orriz orri etenik gabe errepikatzen zaizkigun irudien erabilerekin; enara beltzak nagusiki, baina baita izarrak, itsaso urdinak eta gaua ere. Naturaren elementu hain ezagun eta, agian, tipiko hauek behin eta berriz topatzea, baina, ez

da errepikakorra edo astuna gertatzen. Aldiz, olerkiz olerki Igartuaren mundu ikuskera edo unibertsoan sartzea ahalbidertzen du, eta, horrela, geroz eta erosoago sentitzen zara liburuaren bidaia horretan.

Liburu gomendagarria, berriz, eta egun, denbora urrearen pare daukagun honetan, erlojua eta agenda alboratu eta gauero gure minutu batzuk eskaintzea merezi duena.

Taldekideek musikaren aldeko apustu sendoa egin dute eta Bartzelonara joan dira bizitzera. Han aurkeztu dute Kindergarten's Flight diskoa

# Peachy Joke: "Gure musikak jarraitzaile gehiago ditu Bartzelonan"

20

"Grey Reveille" lehenengo diskoa argitaratu eta urte beteren buruan kalean da Peachy Joke taldearen bigarren lana. "Kindergarten's Flight" diskoak erritmo biziko abesti dantzagarriak dakartza. Batez ere, zuzeneko begira prestatu dute diskoa. Izan ere "zuzeneko taldea" da Peachy Joke. Taldea Bartzelonara joan da bizitzera, eta han inguruan kontzertu mordoa lotzeko aukera izan dute. Herrira ere hurbilduko dira: maiatzaren 8an Tolosan joko dute; martxoaren 30ean berriz Donostiako Gaztezenan ikusiko ditugu.

Leire Zubeldia

Zer dela eta joan zarete Bartzelonara bizitzera?

Arrazoirik handiena gure disko berria aurkeztea izan da. Inguru hauetan gehiago mugitzeko, kontzertu gehiago eskaintzeko eta gure musika

estiloaren zirkuituan pixka bat gehiago barneratzeko aukera daukagu.

Taldea eta musika al dira lehenetasuna taldekideentzat?

Momentu hauetan bai. Apustu moduko bat izan da hau, ez dakigu hemendik urte beterra non izango garen eta nola egongo garen, baina oraingoz gure betiko ametsaren atzetik goazela esan daiteke.

Musikari "profesionalak" izateko apustua egin duzuela esan daiteke?

Horiek hitz handiak dira. Edozein musikariren nahia da hori, baina gaur egun gauza oso zaila dago. Hala ere, lehen esan bezala, musika da gure lehen ardura.

Duela urte bete atera zenuten zuen lehen diskoa. Jada, bigarrena ere prest duzue. Denbora gutxi izan duzue...

"The Grey Reveille" diskoa iaz argitaratu zen bai, baina urte beteko atzerapena zekarren; master-a, kopiak eta

beste hainbat gauza tarteko atzeratu egin zen. Kontzertuak ematen jarraitu genuen denbora luzean, aldi berean ordea, lokalean abesti berriak sortzen joan ziren. Aurreko udan hasi ginen disko hau prestatzen. Dagoeneko hirugarren bati begira gaude!

Urte honetan kontzertu ugari eskaini dituzue. Zer nolako sentazioarekin amaitu duzue zuzeneko sorta hau?

Egia esan hemendik aurrera dauzkagu kontzertu gehienak. Bartzelonara etorri eta ate ugari iriki zaizkigula esan daiteke. 15 bat kontzertu ditugu lotuak eta erdi lotuak badira beste batzuk. Kontzertuetara geroz eta jende gehiago dator eta harreara ona izaten ari gara.

Kontzertu horietako batzuk Tolosa eta inguruko herrietan eman dituzue. Nola hartu dute herritarrek zuen musika?

Bartzelonara etorri aurretik Donostian jo genuen azken kontzertua. Kontzertu hau Eitb eta Euskadi Gaztean iragarri



zen eta egia esan leporaino bete zen aretoa. Hala ere, betiko kontzertuetara etortzen diren pertsonen gain, gure musika estiloa ez da asko mugitzen Tolosa eta inguruetan; horregatik mugitu gara Bartzelona aldera.

**Goazen disko berriaz hitz egitera: zer topatuko du entzuleak bigarren honetan?**

Zuzenerako prestatua dago disko hau: erritmo bizi eta dantzagarriak ditu. 60 eta 70. hamarkadako taldeen eta gaur egungo beste talde batzuen influentziak nabari dira. Hiru hitzetan azaltzeko, zuzeneko Rock&Roll-a da "Kindergarten's Flight".

**Zer dela eta haurtzarora itzultzeko behar hori?**

Diskaren izenburua Kindergarten's Flight da... Hitz jolas honek gure haurtzarotik alde egin nahia adierazten du. Ez da haurtzarora itzultzeko beharra, baina bai nahi gabe beragan-dik ihesi gabiltzala.

**Hans Krüger-ekin lan egiteak zer aportatu dizue?**

Batez ere profesionaltasuna. Delorean eta El Columpio Asesino bezelako taldeen atzean dago eta tipo honek badaki zer egiten duen. Aurreko diskoa ere berarekin grabatu genuen. Oso gustora geratu ginen. Bigarren hau bararekin grabatzea erabaki genuenean ez genuen zalantzarik eduki.

**Bideoklipa ere grabatu duzue, Laskorain Ikastolako hurrekin batera gainera. Nolakoa izan da esperientzia?**

Izugarrria!! Beste mila gauza bezala Virginiak lortu zigun hori eta oso ondo pasa genuen...

Beraiek ere baietz uste dugu, batez ere klaseak galdu zituztelako ia egun osoan! Gure hirugarren bideoklipa izan da, eta dudarik gabe dibertigarriena.

**Bigarren lan honetako kantuak egiterako garaian zuzenekotan pentsatu duzuela aipatu duzue...**

Bai, aurreko diskoa zubi moduko bat izan zen; maketatik honako disko honetara. Abestiak kontzertuetarako pixka bat motel geratzen ziren. Disko honetan dauden abestiak berri-zuzenean dantza egitera gonbidatzen dute, eta ateratzen ari diren kantu berriak are eta gehiago.

**Horrek zuzeneko indartsuak eta biziak egiteko asmoa duzuela esan nahi al du?**

Dударik gabe! PEACHY JOKE zuzeneko talde bat da. Askok ikasi dugu denbora gutxian eta bide horretatik jarraituz gero kontzertu hobek ateratzen dira, bai musikalki eta baita show-aren aldetik ere. Zuzenean gure musikarekin disfrutatzen dugu eta hori antzeman egiten da.



**Non ibiliko zarete zuzenekoetan?**

Frantzitik gatoz, Lyon eta Saint Etienne. Tolosako Beotibar Pilotalekuan ere izan gara. "Macrofiesta universitaria" delakoan ere jo dugu Itzela aretoan eta martxoaren 30ean Donostiako Gazteszenan izango gara La Habitación Roja taldearekin. Ondoren Bartzelonan ditugu kontzertu asko. Jendeak non jotzen dugun jakin nahiko balu onena gure webgunean sartzea da. Bertan hemendik ekainera bitartean ditugun kontzertu guztiak aurkitu daitezke eta. [www.myspace.com/peachyjoke](http://www.myspace.com/peachyjoke)

**Tolosaldera hurbilduko al zarete?**

Bai, Maiatzaren 8an Tolosako Trianguloan izango gara.

**Bartzelonan bizitzeak aukera gehiago ematen al ditu kontzertuak lortzeko garaian?**

Ez daramagu denbora asko, hala ere kontzertu pila bat ateratu zaizkigu. Irratiak, telebistak... harrিতa geratu gara egin diguten harrerarekin. Egia da gure musikak jarraitzaile gehiago dituela inguru hauetan.

## ALDATZ Kristaldegia

**Mota guztiako beirak**  
Bainu eta dekoraziorako  
ispi luak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-itxurak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

## Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak  
Kotxe-aseguruak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-aseguruak  
Denda-aseguruak  
Erreirioak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)



**Tolosa Bit**  
Informazioa Zerbitzuak  
Ordezagaitzak eta konpainien  
Egitea eta jarduera-erretako  
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
[www.tolosabit.es](http://www.tolosabit.es)

Tolosaldeko bost korrikalarik hartu zuten parte Saharako Maratoian

# Bada denborak garrantziarik e

... Saharako maratoia. Lasterketaren aitzakian, sahararren arazoa ezagutu eta euren egoera munduan zabaltzea da benetazko helburua. Otsailaren 22an izan zen lasterketa. 80 euskaldun izan ziren bertan; tartean, Tolosaldeko hainbat herri-tar. Itzuleran, Arantza Uranga eta Gregorio Eizagirre Galtzaundirekin elkartu ziren Saharako bizipenak kontatzeko. Elkarrizketa egiten ari ginen une berean, ziur, munduko beste txokoren batean ere Saharaz eta maratoiaz hitz egiten ari zirela.

Leire Zubeldia

Saharara egindako lehenengo bidaia izan da hau Arantza Urangarentzat. Agustin Agote senarrarekin joan zen: "Senarrak hainbat lasterketetan parte hartzen du, eta beti izan du leku ezberdin batean korrika egiteko gogoia. Ni berriz, lasterketaren aitzakian bidaia egiteko asmoarekin animatu nintzen. Lasterketa anekdotikoa izan da niretzat; han sentitu ditudan bizipenekin eta egin ditudan harremanekin geratzen naiz", kontatu zuen. Gregorio Eizagirrek berriz 4 aldiz hartu du parte basamortuan zehar egiten den maratoian. Sahararekin harreman es-

tua du. "Nire hango familiarekin egon eta jende berria ezagutzeko parada eman dit azken bidaia honek", azaldu zuen.

Arantza eta Gregoriorekin batera, Xabier Zabala, Jon Diaz, eta Agustin Agote joan ziren Tolosaldeko. Guztira, 80 euskaldun abiatu ziren otsailaren 22ko lasterketan parte hartzera. "Iaz 20 pertsona joan ginen. Gure arteko harremanari eusten diogu hiru hilabetez behin biltzen garelarik. Bilkura horietako batean maratoia Koldo Mitxelena aurkeztu eta 100 euskaldun biltzeko helburua jarri genion gure buruari". Ez ziren zehaztutako kopurura iritsi, baina hala ere oso pozik daudela aitortu du Eizagirrek: "Krisi garaian gaudela kontutan hartuta, eta otsaila erdian aste beteko oporrak hartzea denen eskura ez dagoela jakinda, talde polita osatu dugu. Baina gauza guztietan garrantzitsuena, bidaia egin duen jendea oso gustura itzuli dela da".

**Saharako egoeraren bozgorailu**

700 korrikalari inguru helmugaratu ziren Smarako helmugan. Euskaldunak, espainiarrak, argeliarrak, japoniarrak, ingelesak, canadarrak... Munduko txoko ezberdinetako jendearekin egin zuten topo eskualdeko korrikalariek. Horrek esan nahi du, Sahara-

ren problematika mundu osoan dela ezaguna: "Orain, maratoian izandako pertsona guztiak euren herrietan Saharan bizi eta ikusitakoa kontatzen ariko dira". Azken finean, Saharan egiten diren ekintza guztiak helburu horrekin egiten dira, baita maratoia ere. Kirol proba hau gainera, Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoaren sorreraren urteurrenaren (otsailak 27) inguruan ospatzen da.

**Basamortuan korrika**

Maratoia, maratoi erdia, hamar kilometroko zirkuitua eta bost kilometroko ibilbidea egiteko aukera eskaini zitzaizen parte hartzaileei. "Nik bost kilometro egiteko asmoa nuen, baina ikusi nuenean Gregoriok hamar kilometro egin behar zituela, ni ere animatu egin nintzen", kontatu zuen Arantzak. Ez da samurra basamortuan korri egitea, baina lehen aipatu bezala, parte hartzaile gehienek erlojurik gabe egin zituzten helmugara arteko kilometroak. "Lasai-lasai joan ginen, argazkiak ateraz, bazterretara begiratuz. Lasterketa oinez egiten dutenak ere badaude". Garrantzitsuena iristea da, batez ere helmugara iritsi aurreko azken kilometroetan sortzen den giroaz gozatzeko: "Maratoia festa handia da eurentzat. Smara-ko helmugara iritsi baino hiru kilometro lehenago jende pila bat





# ez duen maratoi bat...

zegoen lasterkarien zain; umeak eskolatik atera ziren lasterketa amaiera ikusteko; eta emakumeek beraien irrintzi berezi hori egiten zuten. Horrela helmugara arte. Izugarria izan zen". Sahararrak ere parte hartu zuten maratoin. Distantzia bakoitzean 100 saharar aritu omen ziren korrika. "Frente Polisarioak ahalegin handia egin du aurten. Bertako korrikalarientzat ere ekipaia egin dute. Hala ere, oinetakoak eskue-tan zizutela, oinutsik korri egiten ikusten zenituen; euren erara".

Erlojurik gabe joan ziren gure elkarrizketatuak eta parte hartzaileen %90. Baina noski, kirolari peto-petoentzat erakargarritasun handia du basamortu batean korrika egiteak, eta zenbait korrikalari ahalik eta lanik txukunena egiteko asmoz irten ziren. Hori izan zen Jon Salvador-en kasua. Eran-diotarrak irabazi zuen lasterketa, eta marka hautsi zuen gainera.

## Antolakuntza bikaina

Basamortuan maratoi bat egitea zaila bada, are zailagoa da maratoia antolatzea. Hala ere, antolakuntza ona azpimarratu dute elkarrizketatuek. "Han ez dago ezer. Dena Madrildik eramaten da, baita korrikalarientzako ura ere". Hiru kilometroz behin ura edan eta zerbait jateko postuak jarri zituzten. Lasterketa hasi au-

rretik berriz, ostatu hartuta zuden Smara-tik irteera puntuetara autobusez eraman zituzten parte hartzaileak. "Maratoi eguneko antolakuntza guztiaz gain, bezperan ere makarroi jana antolatu zen parte hartzaile guztientzat. Lokal handi bat dute han, eta bertan bildu ginen denok. Soilik erdientzako aulkiak zeuden, beste erdiek zutik afaldu behar izan zuten. Baina oso gustura hala ere". Gosaria ere eman zieten.

## Haima barruko bizipenak

Korrikalariet bertako familien Haimatan pasa zuten astea. Hain zuzen ere, haima barruan igarotako momentuek sortarazten dizkie oroitzapenik ederrenak. "Dena ematen dizute. Oso arretatsuak dira", azaldu zuen Arantzak. Saharan arratsaldeko 19:00etarako ilun dago, eta han ez dute farolarik kalean. "Denak etxean sartzen dira, eta tea hartuz, elkarrizketa luzeak izaten dituzte". Saharar emakumeek herriaren alde egindako lanak hunkitu du gehien Arantza. "Senarrak borrokan zeudela, ezerezetik herriak sortu dituzte. Hain baliabide gutxi edukita, antolakuntza maila altua dute: haur guztiak eskolatuak daude; itsuentzako eta urritasunen bat dutenentzako eskola bereziak ere badituzte". Baina batez ere gauza bat azpimarratu



nahi izan du Urangak: "Hemendik bidaltzen den guztia iritsi egiten da, eta gainera, oso ondo antolatu eta banatzen dute".

Arantza eta bere senarra esperimentzia errepikatze gogoz etorri dira. Gregoriotik berriz orain arte bezala jarraituko du, Sahararen alde lan egiten. Orain bertso saio baten antolakuntza lanetan dabil: martxoaren 28an izango da Beotibar pilotalekuan. Txapelketa nagusiko finalistak izango dira oholtza gainean, eta gai jartzaile lanetan Amaia Agirre arituko da. Bertan biltzen den dirua, Saharako zonalde liberatuan eskola bat eraikitzen laguntzeko izango da. Maratoirik ez dugu egin, baina gure hondar alea jartzeko modu bat izan daiteke bertara hurbiltzea. ©



ARTE  
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana:  
marrazketa,  
margoak,  
eskultura.

Larrugintza ikastaroa  
helduentzako  
Bozetadoa, patronajea eta  
larruzko tiraz josia.

Matrikula irekia  
Data zehazteko  
Ikasleen erakusketa martxoaren  
29tik apirilaren 16ra.

Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

euskararen  
semaforoa  
euskararensemaforoa  
blogspot.com






## irakurri entzun Ikusi

### Marina Suredaren amets urratuak

Joxe Belmonte F. de Larrinoa Marina Sureda adinertaineko emakumea da. 25 urte dira bere senarrarekin ezkondu zela. Etxeko altzari bat balitz bezala sentitzen da; maitasunez hustuta; aspaldi erori zen errutinaren amildegitik. Duela 14 urte ingeleseko akademian ezagutu zuen Fran izeneko mutilak idatzitako gutuna berreskuratuko du. Orduan konturatuko da maite zuela. Fran-en bila joango da, bere bizitzari bizia emateko helburuarekin.



### Made in Medina

Rachid Taha Rachid Taha abeslari argeliarra da, umea zelarik bere familiarekin Frantziara emigratu behar izan zuena. Ezaguna munduko hainbat musiken tradizioak nahastu izanagatik, genero ezberdinetaz baliatzeko ere ez du inongo arazorik; rai, teknoa edota rocka aurki ditzakegu bere diskoetan, beti emaitza original bat lortuz. 2000. urteko disko honetan erakutsi zigun Argeliako musikatik abiatuta rocka egin daitekeela sustraiak galdu gabe.



### Flor del desierto

Sherry Horman Waris Dirie Somalian, jaioa da, harea eta nomaden artean. 13 urte zituela derrigortutako ezkontza batetik libratzeko alde egin zuen. Desertuan galdutata ibili ondoren, Somaliako hiriburura iristea lortu zuen. Han bere aahidekoek Londresera bidaliko dute lanera. Londresen modelo gisa hasiko da lehenengo pausoak ematen, pasarela garrantzitsuenetara iritsi arte.



# Martxoaren 18tik apirilaren 9ra arteko hitzordduak

## Erakusketa

Aranburu jauregia



- Apirilak 10era arte: "Aurrez aurre - Emakumeak protagonistak" erakusketa interaktiboa.

## Zine Forum

Leidor

- Martxoak 19: "Mi vecino Toto" filma jatorrizko bertsioan, 19:30ean.  
- Martxoak 25: "Garbo: el espía" filma jatorrizko bertsioan, 19:15 eta 21:45.

## Zinema

Leidor

- Martxoak 19: "Tiana y el sapo" haurrentzako filma, 17:00etan. "El hombre lobo" filma 22:30ean.  
- Martxoak 20: "El hombre lobo" filma 19:30ean eta 22:30ean.  
- Martxoak 21: "Tiana y el sapo" haurrentzako filma 17:00etan. "Invictus" filma 19:30ean eta 22:00etan.

- Martxoak 22: "Invictus" filma 20:30ean.  
- Martxoak 27: "Up in the air" filma 19:30ean. "En tierra hostil" filma 22:30ean.  
- Martxoak 28: "Rompedientes" haurrentzako filma 17:00etan. "Up in the air" filma 19:30ean eta 22:00etan.  
- Martxoak 29: "En tierra hostil" 20:30ean.

## Ikuskizunak

Leidor

- Martxoak 26: Aukeran dantza taldearen Gernika ikuskizuna 20:30ean.

TOPIC



- Martxoak 18: "May Gorostiaga? Presente!" emanaldia May Gorostiagaren eskutik 20:30ean.

## Hitzaldiak

Tolosako Kultur Etxea

- Martxoak 25: "El humor y la risa en la vida cotidiana" hitzaldia 20:00ean. La risa inteligente elkarteak antolatuta.  
- Martxoak 26: Juan Alonsoren hitzaldia kiropraktikari buruz 19:00etan.



Zerkausia

- Martxoak 24: Kontsumotaldeei buruzko hitzaldi informatiboa 19:00etan. Biolur-ek antolatuta, Tolosan kontsumo taldeak sortzeko ekimenaren baitan.



## Amalur Jardunaldiak 2010

TOPIC

- Martxoak 15, 16, 22 eta 23: "Nola prestatu bidaia bat?" tailerra Mikel Arrondoren eskutik. 19:00etatik 21:00etara.  
- Martxoak 24: "Basamortu bi-ziak?" hitzaldia Ander Izagirren eskutik, 20:00etan.  
- Martxoak 25: "Nomadak: hor-

## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Esualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Bioeraikuntza eta aurrezte energetikoa	2010.03.22	20
Paisaiari buruzko argazki ikastaroa	2010.03.22	Hiruhilabetea
Biltegiatiko segurtasuna	2010.04.02	30
Paper antzerkian trebatzeko ikastaroa	2010.04.06	10
Nazioarteko gaurkotasuna. Jesús Torquemada.	2010.04.12	20
Paper makina	2010.04.12	50
Dementziak: Jarduera jarraibideak eta jokabide desorekak	2010.04.12	15

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia      Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA      Posta-e: info@ikastn.com  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa      Webgunea: www.ikastn.com

tzimuga bizitoki" hizaldia J. Maria Palauren eskutik 20:00etan.  
- Martxoak 26: "Bidaiari handiak ekialdetik", Cristina Moratóren eskutik, 20:00etan.

# e<sup>2</sup>

euskaratik  
eta euskaraz


Galtzaundi Euskara Taldearen  
urteko Batzarra

- Martxoak 24: Tolosako Kultur  
Etxean, 19:30ean.

## Musika

Bonberenea

- Martxoak 27: Cordura eta  
Lords of bukkake(BCN) 22.30h.



- Martxoak 28: Unsain anaiak  
and Konpany

- Apirilak 3: Bad sound system  
eta Niko(italia). 22.30h.

- Apirilak 4: Blood seekers, Naut  
eta Lines. 22.30h.

## Goardiako farmaziak

<b>Osteguna, 18</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Astearte, 23</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Igandea, 28</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
<b>Ostirala, 19</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	<b>Asteazkena, 24</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Astelehena, 29</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa
<b>Larunbata, 20</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Osteguna, 25</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Astearte, 30</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa
<b>Igandea, 21</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Ostirala, 26</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Asteazkena, 31</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 22</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Larunbata, 27</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Osteguna, 1</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(larrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	943 672 932
Medikua	943 683 361	Udaltzaingoa
943 889 003	943 672 536	Ur eta Argia (Tolargi)
(asteazk.)	943 674 888	Ur zerbitzuak (aberiak)
Berastegi-Elduain	943 651 425	943 675 858
Medikua	943 672 411	943 650 016
Bidegoian	943 653 329	639 352 156
Medikua	943 690 720	943 670 325
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 650 931	112
Osasun etxea	943 006 800	943 672 536
Ikaztegieta		943 674 888
Medikua		943 651 425
943 653 329		943 672 022
Irura		943 675 320
Osasun zentroa		943 682 077
Tolosa		943 655 595
Anbulatorioa, larriald.		943 682 228
San Esteban, hitzordua		



## SANTA LUZIA GARAJEA


Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA



## Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jel.es



## Beatriz Dekorazioa Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak  
(bat erositua beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak  
etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886 - 943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615 - 943 671 149

# Muxutruk

## lana

• Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527

• Ingeleseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluaduna. 664.160.268

## Etxebizitza

• Etxebizitza salgai izakun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631

“Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125”

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

## Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858

• Igin markako akordeoia saltzen da. Tamaiaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

# Horoskopoa

Martxoaren 18tik apirilaren 9ra arteko aurreikuspena



## aries

**Martxoak 21-Apirilak 21**  
Pentsatu beharraren pentsatu beharraz zeu bakarrik nahasten zara. Egun zoragarriak datoz, burua freskatu eta haize-berritu egingo zara. Eskerrak, behar duzu eta!



## taurus

**Apirilak 22-Maiatzak 21**  
Gogor ari zara lanean eta emaitzarik ez duzu ikusten. Eutsi horri, laster jasoko dituzu fruituak. Bitartean, saia zaitez motibatuta zaitzaketen ekintzak egiten.



## gemini

**Maiatzak 22-Ekainak 21**  
Berak eskertzen du zure arreta. Baina kontuz! ezberdinak dira arreta eskaintzea eta euli bat baino astunagoa izatea. Zaindu eztarria. Baztertu edari hotzak.



## cancer

**Ekainak 22-Uztailak 22**  
Elaitzaren ostean dator barea. Aste Santua oso ona izango da zuretzat, bereziki maitasunaren alorrean. Arlo ekonomikoan espero ez zenuen diru sarrera bat jasoko duzu.



## leo

**Uztailak 23-Abuztuak 22**  
Kemenarekin hartu behar duzu hurrenko hiruhilekoa. Hasi besterik ez da egin, eta jada gogogabeturik bazau, ekainera arteko bidea ez zaizu xamurra egingo.



## virgo

**Abuztuak 23-Irailak 22**  
Zuhurrago jokatu beharko zenuke, jende aprobeategi ugari duzu inguruan. Eskaintza bat jasoko duzu, aisialdiarekin lotutakoa. Jende berria ezagutzeko aukera ona izan liteke.



## libra

**Irailak 23-Urriak 22**  
Poltsikoa estutu eta kutixiei muzin egitea komeni zaizu. Gastu handiko hilabeteak datoz zuretzat. Ongi etorriko zaizu dirua aurrezteko modu bat asmatzea.



## scorpius

**Urriak 23-Azaroak 22**  
Altxa sofatik! Gero amorratu egiten zara erosketak egitera joan eta gustuko dituzun prakak sartzan ez zaizkizulako! Alfertu xamar zabailtza. Egin gogor zeure buruari!



## sagittarius

**Azaroak 23-Abenduak 21**  
Eltzea sutan jartzen denean ikusten da berotzen duen edo ez. Uxatu beldurrak eta zuzenean galde egiozu. Azken buruan, berak badaki zer bait sentitzen duzula



## capricornius

**Martxoak 21-Apirilak 21**  
Nahi duzun hori lortzen ohituta zaudete. Baina beti ez da horrela izango, eta hori onartzen ikasi behar duzu. Hori egin ezean zaplasteko latza hartu behar duzu. Dentistari bisita.



## aquarius

**Urtarrilak 21-Otsailak 20**  
Ondo begiratu gida-baimena, nortasun agiria, aseguru etxeko klausulak. Paperen bat gaizki daukazu, eta konpontzen ez baduzu arazoak izan ditzakezu.



## piscis

**Martxoak 21-Apirilak 21**  
Datozen asteek aldaketak ekarriko dituzte zure egunerokotasunera. Aldaketa txikiak izango dira, baina nahikoak zeure orain arteko martxa trastornatzeko. Lasai hartu.







martxoaren 24an

# E<sup>2</sup>

## euskaratik eta euskaraz

martxoak 24,  
Galtzaundi Euskara Taldearen urteko batzarra  
Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:30ean



**galtzaundi**  
euskara taldea

Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943 655 004